

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

165/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan izango dituen ordezkariak izendatzeari

Foru Gobernu Kontseiluaren ardura da Arabako Foru Aldundiak erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuetan dituen ordezkariak izendatzea, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzkoa, bere 8.1.a) artikuluan, 8. eta 9. idatz zatietan aurreikusikoaren arabera.

Beraz, ezinbestekoa da zenbait erakundetan Arabako Foru Aldundiak izango duen ordezkari-tza izendatzea.

Horregatik, Diputatu nagusiaren proposamenez, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa: I eranskinean aipatzen diren Arabako Foru Aldundiko ordezkarien izendapena onartzea foru administrazioak partaidetza duen erakundeen erregistroko kodeaz identifikatutako hainbat entitatetan.

Bigarrena: erabaki honek onartzen den egunetik bertatik aurrera izango ditu ondorioak, ALHAOn argitaratuko den eguna edozein dela ere.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kabinetearen eta Komunikazioaren zuzendaria

ELENA FERREIRA SEBASTIÁN

I eranskina/ Anexo I
Arabako Foru Aldundiaren ordezkarien izandapenak eta kentzeak/
Nombramientos y ceses de representantes de la Diputación Foral de Álava

izendapena/nombramiento

kentzea/cese

titulara/ordezkoa
titular/suplente**25 BERDINTASUNA, EUSKARA ETA GOBERNANTZA / 25 IGUALDAD, EUSKERA Y GOBERNANZA**

442 ASOCIACIÓN PARA LA GENERACIÓN Y GESTIÓN DE DATOS LINGÜÍSTICOS PARA LAS TECNOLOGÍAS DIGITALES DEL EUSKERA —EUSKORPORA— EUSKARAREN TEKNOLOGIA DIGITALETARAKO HIZKUNTZA-DATUAK SORTU ETA KUDEATZEKO ELKARTEA

Iñaki Gurtubai Arretxe, Euskera eta Gobernantza Saileko foru diputatua / Diputado
Foral de Igualdad, Euskera y Gobernanza

Miren Zabelaia Basterrechea, Gobernantzaren zuzendaria / Directora de
Gobernanza

titular / titularra

suplente / ordezkoa